Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

442

EBAZPENA, 2009ko urtarrilaren 5ekoa, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko zuzendariarena, 2005eko irailaren 30eko Ebazpenaren bidez Caleb Brett Iberica SAU erakundeari Euskal Autonomia Erkidegoan baimendutako kontrol-erakunde moduan jarduteko emandako baimena eguneratu eta zabaltzen duena.

AURREKARIAK

Bat.– Industria eta Meategiak Administratzeko zuzendariaren 2004ko urtarrilaren 20ko Ebazpenaren bidez, Caleb Brett Iberica SAU enpresa -Rekalde Zumarkalea 27, Bilbao- Baimendutako Kontrol Erakundeen Erregistroan inskribatu zen Euskal Autonomia Erkidegoan jarduteko, GV-022-A zenbakiarekin, eta Industria eta Meategiak Administratzeko zuzendariaren 2005eko irailaren 30eko ebazpenarekin eguneratu zen.

Bi.– 2008ko azaroaren 28an, idazki bat sartu zen sail honen erregistroan. Idazkia Haizea Vega andreak Caleb Brett Iberica SAU enpresaren ordezkari giza aurkeztu zuen, eta haren bidez eskatu egiten zen emandako baimena eguneratzeko, ENACen eranskin tekniko batean egindako aldaketa batean oinarriturik, eta A motako ikuskapen-erakunde gisa egiaztatzeko 46/EI141 zenbakidun eranskin teknikotik OC-I/144 zenbakidun kontrol-erakunde motako egiaztapenera igarota.

Hiru.– 2008ko irailaren 3an, Egiaztatze Erakunde Nazionalak Caleb Brett Iberica erakundearen OC-I/144 zenbakiko egiaztapenaren 2. berrikuspenaren eranskin teknikoa argitaratu zuen, non arlo hauek sartzen baitira kontrol erakunde gisa egiaztatzeari dagokionez: «Jasogailuak: garabiak» eta «Elektrizitateari buruzko araudia: goi-tentsioa eta behe-tentsioa».

Espedientea ebazterakoan beharrezkoa da honako hauek aintzat hartzea eta aipatzea:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Bat.– Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzak du espediente hau ebazteko eskumena, hala ezartzen baita Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen urriaren 11ko 284/2005 Dekretuaren 20. artikuluan.

Bi.– Martxoaren 21eko 411/1997 Errege Dekretuak (1997-04-26ko BOE, 100. zk.) aldatu egin zuen aben-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

442

RESOLUCIÓN de 5 de enero de 2009, del Director de Consumo y Seguridad Industrial, por la que se actualiza y amplía la autorización concedida por Resolución de 30 de septiembre de 2005 a la entidad Caleb Brett Iberica, S.A.U., para actuar como Organismo de Control en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

ANTECEDENTES DE HECHO

Uno.– Mediante Resolución de 20 de enero de 2004, del Director de Administración de Industria y Minas, se inscribió a la entidad Caleb Brett Iberica, S.A.U., con domicilio social en Alameda de Recalde, 27, 48009 Bilbao (Bizkaia), en el Registro de Organismos de Control Autorizados para actuar en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi con el número GV-022-A, actualizada mediante resolución de 30 de septiembre de 2005, del Director de Administración de Industria y Minas.

Dos.– Con fecha 28 de noviembre de 2008 tiene entrada un escrito, en el registro de este Departamento, de Dña. Haizea Vega, en calidad de representante de Caleb Brett Iberica S.A.U., por el que presentó solicitud para la actualización de de la autorización concedida, en base a un cambio en el anexo técnico de ENAC, pasando del anexo técnico n.º 46/EI141 de acreditación como entidad de inspección tipo A a la acreditación tipo Organismo de Control n.º OC-I/144.

Tres.– Con fecha 3 de septiembre de 2008 la Entidad Nacional de Acreditación (ENAC) hace público el anexo técnico Rev. 2 de la acreditación n.º OC-I/144 de la entidad Caleb Brett Iberica en la que se incluyen las áreas «Aparatos elevadores: grúas» y « Reglamentación eléctrica: alta tensión y baja tensión» en el alcance de la acreditación como Organismo de control.

En la resolución de este expediente es preciso tener en cuenta y hacer referencia a los siguientes

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Uno.– La Dirección de Consumo y Seguridad Industrial es el órgano competente para la adopción de la presente Resolución en virtud de lo establecido en el artículo 20, del Decreto 284/2005, de 11 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

Dos.– La Sección 1.ª del Capítulo IV del Real Decreto 2200/1995, de 28 de diciembre, por el que se

duaren 28ko 2200/1995 Errege Dekretua, Industria Kalitate eta Segurtasunerako Azpiegituren Erregelamendua onartu zuena (1996-02-06ko BOE, 32. zk.). Dekretu haren IV. kapituluko 1. atalak kontrol-erakundeak arautzen ditu: dekretuaren 42. artikulua egiaztapenei buruzkoa da eta 43. artikulua, baimenei buruzkoa.

Hiru.– Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzan dagoen Baimendutako Kontrol Erakundeen Erregistroan inskripzioa egiteko, lehen aipatu abenduaren 28ko 2200/1995 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak, baita aplikatu beharreko bestelako arauak ere betetzen dituela egiaztatu du Caleb Brett Iberica SAU entitateak, horretarako behar zen dokumentazioa aurkeztuta. Beraz, espedientea izapidetzeko beharrezko diren arauzko baldintzak bete dira.

Aipatutako lege-xedapenak ikusita eta oro har zein haiekin bat etorrita aplikagarri diren gainerakoak oinarri hartuta, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko zuzendariak honako hau

EBATZI DU:

1.– Caleb Brett Iberica SAU erakundeari aurretik emandako baimena eguneratu eta zabaltzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan baimendutako kontrol erakunde moduan GV-022-A zenbakiaz jarduteko. Erakundearen egoitza Bilboko Rekalde Zumarkaleko 27ko bosgarren solairuan dago (48009). Arauzko eremuen zerrenda honako hau izango da:

• Jasogailuak. Garabiak: martxan jartzen direneko ikuskapenak eta ezohikoak (dorre-garabiak) eta aldizkako ikuskapenak (garabi mugikor autopropultsatuak).

– Ekainaren 27ko 863/2003 Errege Dekretua (2003-07-17ko BOE); dekretu horrek jasogailu eta mantentze-gailuen araudiaren «MIE-AEM -2» jarraibide tekniko osagarria onartu zuen, obretako eta bestelako aplikazioetarako dorre-garabiei buruzkoa.

– Ekainaren 27ko 837/2003 Errege Dekretua (2003-07-17ko BOE), garabi mugikor autopropultsatuei dagokienez, jasogailuen eta mantentze-gailuen Araudiko «MIE AEM-4» jarraibide tekniko osagarriaren testu aldatua eta bateratua onartu zuena.

• Elektrizitateari buruzko araudia: Behe-tentsioa: Hasierako eta aldizkako ikuskapenak.

– 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretua (2002-09-18ko BOE), behe-tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoa onartzen duena. BT01etik BT51ra bitarteko jarraibide tekniko osagarriak.

– 1973ko irailaren 20ko 2413/1973 Dekretua (1973-10-09ko BOE), behe tentsiorako erregelamendu elektroteknikoa onartzen duena; Dekretu hori 1985eko urriaren 9ko 2295/1985 Errege Dekretuak (1985-12-12ko BOE) eta jarraibide tekniko osagarriek -MI-BT 001etik BT 044ra bitartekoek- aldatu zuten.

aprueba el Reglamento de la Infraestructura para la Calidad y Seguridad Industrial (BOE n.º 32, de 06-02-1996), modificado por el Real Decreto 411/1997, de 21 de marzo, (BOE n.º 100, de 26-04-1997), regula los Organismos de Control haciendo referencia en el artículo 42 a su Acreditación y en el artículo 43 a su Autorización.

Tres.– La Entidad Caleb Brett Iberica S.A.U., ha acreditado mediante la documentación presentada el cumplimiento de los requisitos establecidos en el Real Decreto 2200/1995, de 28 de diciembre mencionado anteriormente y demás normas que resultan de aplicación, para ser inscrita en el Registro de Organismos de Control Autorizados de la Dirección de Consumo y Seguridad Industrial, cumpliéndose en la tramitación del expediente todos los requisitos reglamentarios.

Vistos los preceptos legales citados y otras disposiciones de general y concordante aplicación, el Director de Consumo y Seguridad Industrial,

RESUELVE:

1.– Actualizar la autorización concedida anteriormente a la entidad Caleb Brett Iberica S.A.U. con domicilio social en Alda. Reclade, 27-5.º 48009 Bilbao (Bizkaia), para actuar como Organismo de Control Autorizado en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi con el número GV-022-A, sustituyendo la relación de campos reglamentarios por la siguiente:

• Aparatos Elevadores. Grúas: inspecciones de puesta en servicio y extraordinarias (Grúas Torres) e inspecciones periódicas (Grúas Móviles autopropulsadas).

– RD 863/2003, de 27 de junio (BOE de 17-07-2003) por el que se aprueba una nueva instrucción técnica complementaria MIE-AEM-2 del Reglamento de aparatos de elevación y manutención, referente a grúas torres para obras u otras aplicaciones.

– RD 837/2003, de 27 de junio (BOE de 17-07-2003), por el que se aprueba el nuevo texto modificado y refundido de la instrucción técnica complementaria MIE-AEM-4 del Reglamento de aparatos de elevación y manutención, referente a grúas móviles.

• Reglamentación eléctrica: baja tensión: inspecciones iniciales y periódicas.

– RD 842/2002, de 02-08-2002 (BOE de 18-09-2002) por el que se aprueba el Reglamento Electrotécnico para Baja Tensión. Instrucciones técnicas complementarias ITC BT01 a BT51.

– D 2413/1973, de 20-09-1973 (BOE de 09-10-1973) por el que se aprueba el Reglamento electrotécnico para baja tensión. Modificado por RD 2295/1985, de 09-10-1985 (BOE de 12-12-1985) y sus ITC MI-BT 001 a BT 044.

• Elektrizitateari buruzko araudia: behe-tentsioa: hasierako eta aldizkako ikuskapenak.

– Zentral elektrikoen, azpi-estazioen eta transformazio-zentroen baldintza teknikoei eta segurtasun-neurriei buruzko 3275/1982 ED, azaroaren 12koa (1982-12-01eko BOE). MIE-RAT 01etik MIE-RAT 20rako jarraibide tekniko osagarriak.

2.– Kontrol-erakunde moduan jarduteko baimenaren luzapenak Egiaztatze Erakunde Nazionalak emandako egiaztagiria indarrean dagoen bitartean izango du balioa. Akreditazioetarako Erakunde Nazionalak emandako egiaztagirian aldaketarik egonez gero, Caleb Brett Iberica SAUk zuzendaritza honi jakinarazi beharko dio.

3.– Ebazpen honetan berariaz aurreikusi ez diren kasuetan, araudi orokorra eta espezifikoa aplikatuko da, baita Industria eta Meategiak Administratzeko zuzendariak 2004ko urtarrilaren 20an emandako Ebazpenak dioena ere. Horren bidez, Caleb Brett Ibérica SAUri baimena ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan kontrol-erakunde gisa aritzeko.

4.– Aldaketarik egonez gero, Industria Establezimenduen Erregistroan dagokion aldaketa egiteko eskatu beharko zaio eskumena duen lurralde-erakundeari.

5.– Aipatu entitateak baimena du adierazitako jarduteeremuetan aritzeko. Baina, aipatu diren erregelamendu eta arau teknikoetan jasota dauden jardueretarako baino ez du balio baimen horrek, Egiaztatze Erakunde Nazionalaren OC-I/144 kreditazio-agirian eta 2008ko irailaren 3ko Eranskin Teknikoan (2. berrikusketa) zehaztu bezala. Entitateak xedapen hauek bete beharko ditu bere jardueretan: Industriari buruzko uztailaren 16ko 21/1992 Legea, abenduaren 28ko 2200/1995 Errege Dekretua -martxoaren 21eko 411/1997 Errege Dekretuak aldatua-, eta bestelako baldintza osagarriak.

6.– Entitateak eutsi egin beharko die inskribatzerakoan zituen egokitasun-baldintzei eta, inskripzio hori egiteko oinarrizko izan ziren datuetan aldaketarik egonez gero, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio berehala.

7.– Legeak agindu bezala, ebazpen hau jakinaraz eta argitara dadila agintzea.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraz, horren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Merkataritza, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Hala agintzen da 4/1999 Legean (lege horrek Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen).

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urtarrilaren 5a.

Kontsumo eta Industria Segurtasuneko zuzendaria,
RUBEN MENDIOLA ERKOREKA.

• Reglamentación eléctrica: alta tensión: inspecciones iniciales y periódicas.

– RD 3275/1982, de 12 de noviembre (BOE de 01-12-1982) sobre condiciones técnicas y garantías de seguridad en centrales eléctricas, subestaciones y centros de transformación. Instrucciones técnicas complementarias MIE-RAT 01 a MIE-RAT 20.

2.– La presente ampliación del alcance de la autorización de actuación como Organismo de Control tiene validez en tanto mantenga la validez la acreditación de la Entidad Nacional de Acreditación. Caleb Brett Iberica S.A.U. queda obligada por la presente Resolución a notificar a esta Dirección cualquier cambio que se produzca en la Acreditación otorgada por la Entidad Nacional de Acreditación.

3.– Para lo no previsto expresamente en esta Resolución será de aplicación la normativa general y específica así como lo indicado en la Resoluciones de 20 de enero de 2004 del Director de Administración de Industria y Minas por la que se autoriza a Caleb Brett Iberica S.A.U. para actuar como Organismo de Control en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

4.– En su caso se deberá solicitar ante el órgano territorial competente la correspondiente modificación en el Registro de Establecimientos Industriales.

5.– La citada Entidad queda autorizada para actuar en los campos reglamentarios citados anteriormente limitando dicha autorización a las actuaciones reglamentarias enmarcadas en los reglamentos y normativa técnica mencionada, especificada en los documentos de acreditación de la Entidad Nacional de Acreditación, n.º OC-I/144, y su anexo Técnico Rev. 2 de fecha 03 de septiembre de 2008, debiendo ajustar sus actuaciones a lo establecido en la Ley de Industria 21/1992, de 16 de julio, el Real Decreto 2200/1995, de 28 de diciembre, modificado por el Real Decreto 411/1997, de 21 de marzo y demás requisitos complementarios.

6.– La Entidad deberá mantener las condiciones de idoneidad por las que ha sido inscrita, comunicando inmediatamente a la Dirección de Consumo y Seguridad Industrial, cualquier variación de los datos fundamentales que sirvieron de base para la referida inscripción.

7.– Ordenar la notificación y publicación en forma legal de la presente Resolución.

Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada ante la Viceconsejería de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de la notificación de esta resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999 de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de enero de 2009.

El Director de Consumo y Seguridad Industrial,
RUBEN MENDIOLA ERKOREKA.